

itsasondo^{2.0}

Herriko Aldizkaria (((36. zk))) Maiatza-Uztaila 2017



Txikiak haundi egiten dute Korrika

2017ko aurrekontuak
Kirol ikastaroen eskaintza 2017
Arbel paisaia ezagutuz



Agurra

Naturan, udaberriaren sartzean, zuhaitzak eta landareak izerdia mugitu eta puja berriak ematen hasten dira. Euskal Herriari dagokionez ere, badirudi udaberriak izerdi berria ekarri duela, eta euskal gaztaka konpontzeko bidean urrats garrantzitsua egin dela armagabetzearekin; eta, beste behin ere, protagonismoa gizar

zarte zibilak hartu ondoren lortu da.

KORRIKA ere gizarte zibilaren beste lorpen handi bat dela esan daiteke, herriz herri, auzoz auzo, 10 egunetan zehar, KORRIKA festa etengabe eta erraldoia izatea lortzen duen herri auzolanaren emaitza da. KORRIKAz hitz egiten ari garelarik, Itsasondoko herritarrak zoriondu nahi nituzke, KORRIKari egindako harrerarengatik eta antolatutako ekintza andanarengatik. Aipamen berezi bat herriko gazteenei, agerturiko ilusio, indar eta borondatearengatik. Ez dute meritu makala goizeko 4retan jaikitako KORRIKAlari gazteek. Biba zuek!

Geroz eta mundu indibidualistagoan bizi garela esaten badigute ere, egunerokoan baditugu hainbat eredu non gizarte zibilak eta herritarrek, elkarlanean eta auzolanean, emaitza eta helburu handiak lortu ditzaketenak. Hor daude bideak, aukeratu zurea!

Aldizkariaren edukiari lotuz, azken hiruhilekoan herrian gertatutakoaren kronika egiten saiatu gara. Udalean gertaturikoen, aurrekontuen, diru-laguntzen, obren berri ematen dizuegu udaleko berrietan. Hemerotekan, aldiz, Itsasondoko herri bizitzaren ekintzak azalduko dizkizuegu: hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak, antzerkia... Herri bizia dugunik ezin uka.

Ale honetan izango dugun berrikuntza bat Itsasondoko kirol aukerei buruzko informazioa izango da. Herrian kirola egiteko hainbat ikastaro eta aukera badaude ere, sarri jendeak ez ditu ezagutzen. Orain ez duzu aitzakiarik; aukeratu gogokoen duzun kirola.

Auzolanaz ari garelarik, Itsasondo 2.0 aldizkaria ere auzolanaren emaitza da. 36. ale hau osatzeko, zintzo-zintzo bidali dizkigute artikuluak jubilatua, eskolak, haur-eskolak, gurasoak, sukaldariak, informatikariak, bertsolariak, udalekoak, baita ingurugiro, ongizate eta kultura batzordekoak ere. Mila esker denoi, zuen alea jartzeagatik. ■



Aurkibidea

- 03-04. **Udaleko berriak**
- 05. **Haurreskola / Guraso elkarte**
- 06-07. **Eskola:** Irati Salinas
- 08. **Jubilatuak**
- 09. **Itsasondoko kirol eskaintza**
- 10-11. **Elkarrizketa:** Mukhtar Ahmed
- 11. **Ongizatea:** Errefuxiatuak ongi etorri
- 12. **Ondartez:** Arbel paisaia
- 13. **Informatika:** Gipuzkoa Encounter
- 14-15. **Ibilbidea:** Urtsuaran bailaran zehar
- 16-21. **Hemeroteka**
- 22. **Natura eta errezeta**
- 23. **Liburuaren txokoa / Euskararen atala**
- 24. **Lehiaketa / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: Zazpi ahizparen gai den oihala

Ongi etorri errefuxiatu, kanpainaren inguruan dokumentalak eta muralak auzolanaren buruan, Mukhtarren hitzak aukeran datoz herritar berri moduan guztientzako lekua eginez Ongizate eremuan.

Jubilatuak ttipi-ttapaka memoria ta irteerak eta Urkipe eskolan berriz gune berriko sarrerak, liburu eta informatikaz zalantzak eta galderak azalpen frango eman dizkigu Irati Salinas berak.

Itsasondoko kirol eskaintza iritsi da aztarrika, liburutxoak nola irakurri pantaila aurrean jarrita? Errezetari erreparatu, antzerkia oso polita martxoak zortzi, muffins tailerra... goazen bada KORRIKA!



Udaleko berriak

2017. urteko lehen hiruhilabetean udaletxean egin diren ekintzen berri azalduko dizuegu.

Udal batzarrak

Otsailaren 6an egin zen aurtengo lehen osoko bilkuran, 2017ko udal aurrekontua onartu zen, 860.000 €koa.

Onartutako mozioak

- Etxegabetezak ekiditeko, finantza erakundeek praktika onen kodea betetzen duten jakitea eta udalak etxegabeteen inguruan onartutako protokoloa betetzeko konpromisoa hartu zuen.
- Goierri Birzirik taldearen mozioa onartu da. Mutiloara hondakinak ekartzeko hasitako prozesua gelditzeko eskatzen du. Aldi berean, hondakinen gaian talde politiko guztien konpromisoa planteatzen da, hondakinak behar bezala sailkatzea lortu eta errefuxa kopurua gutxitzeko.

Beste erabaki batzuk

- Alkateari udal eginkizunetan aritzeko %11ko dedikazioa onartu zaio.
- Udal jabetzako landa-bide eta pisten erabilera berezia erregulatzeko duen ordenantza aldatzea eta bere ordez ibilgailu astunekin udal herri-bide eta baso bideen erabilera arautzeko ordenantza onartu zen. Ordenantza hau jendaurrean egon da otsailaren 24tik apirilaren 7ra arte. Epe horretan ez da inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu; beraz, behin betiko testua argitaratzen denean, indarrean sartuko da.
- Bizikletak gordetzeko frontoiaren albo batean eratu behar den guneko arautegia eta materiala konpartitzeko gelaren erabilera arautzen duten ordenantzak ere pleno berean onartu ziren. Hauek ere jendaurrean egon dira otsailaren 24tik apirilaren 7ra arte. Epe horretan ez da inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu; beraz, behin betiko testua argitaratzen denean, indarrean sartuko dira.
- Udaletxeko kultur guneko obrak egin zituen kontratistari jarritako fidantza itzultzea erabaki da.

Alkate dekretuak

- Otsaileko fakturen zerrenda onartu da: 13.723,34 €.
- Martxoko fakturen zerrenda onartu da: 20.934,34 €.
- Udaletxeko kultur gunea erabiltzeko, herriko elkarte eta eragilean aldetik 10 eskari izan dira.
- Hilerrian egindako lurperatze eta kontzesioengatik zazpi likidazio onartu dira.
- Hilerrian lurperatzeko hutsik dauden hilobien kopurua ikusita (1998tik 2001ko ekainera bitarte hil ziren), 17 gorpu ateratzeko erabakia hartu da.
- 2017ko ibilgailuen gaineko errolda onartu da, 54.771,98 €ko inportarekin.
- 2016ko 4. hiruhilabeteko ur errolda onartu da 10.405,54 €ko inportarekin.
- Murumendi aldean lau bat hektarea dituen lur sail bat erosi da 8.500 €tan.
- 2016. urteko aurrekontuaren likidazioa onartu da, laburpen honekin:
 - 2016ko abenduaren 31n kaxako izakin likidoa: 358.843,09 €.
 - Kobratzeko saldoak: 146.181,21 €
 - Ordaintzeko saldoak: 93.785,80 €
 - Superabita 411.238,50 €
 2015eko likidazioaren superabita 369.108 eurokoa izan zen; beraz, aurten %11 gehiago. Kontuan izanik 2016an udalak zituen maileguak erabat likidatzea lortu dela, udalaren egoera ekonomikoa oso ona dela esan daiteke.

2017ko AURREKONTUAK

INBERTSIO TAULA

	Inbertsioa	Diru-laguntza	Ekarpena
Ur horniduraren 3. fasea	50.000 €	10.000 €	40.000 €
Ur kontagailu sektorialak aldatu	3.000 €		3.000 €
Landa eremuko bideak	15.000 €		15.000 €
Baserri bideetan biondak jarri	12.000 €		12.000 €
Kale Nagusia Beiti kale lorategia txukundu	- €		- €
Frontoiko irrisgarritasuna egokitzeko proiektua	6.000 €		6.000 €
Ertotxe zutik eusteko premiazko lanak	5.000 €		5.000 €
Urkiko aterpea egokitzeko lanak	9.000 €		9.000 €
Arbelaren industri-aztarnak aztertu	20.000 €	15.750 €	4.250 €
Herri bideen inbentarioa eta azterketa	11.000 €		11.000 €
Eskolako pareta	3.000 €		3.000 €
Ingurune naturala Murumendi	42.700 €	30.675 €	12.025 €
	176.700 €	56.425 €	120.275 €

Urteroko dirusarrera eta gastuetaz aparte:

Inbertsio garrantzitsuenak ur horniduraren hobekuntzarekin jarraitzea, herriko arbel industri-aztarnen azterketa eta Murumendi ingurunean burutzen ari garen Ingurune Naturalaren eta bio-dibertsitatearen zaintzarako proiektuarekin jarraitzea besteak beste.

Udal foru fondoa:

Bestalde jakin aurten G.F.A.-ren Udal Foru Fondotik (dirusarrera iturri nagusia) jasoko duguna 462.973€ izango direla. Aurreko urtean 440.790,67€ jaso genituen, eta 9.384,05€ itzuli ondoren GFAtik egindako aurrikuspenak baikorregiak izan zirelako.

SARRERAK

Zergak	130.000 €
Obra baimenak	100 €
Tasak	119.040 €
U.F.F. aren ekarpena eta dirulaguntzak	462.973 €
Dirulaguntzak	42.186 €
Errentak-interesak	16.676 €
Orubeen salmenta	- €
Dirulaguntza proiektu handi	89.025 €
Kreditu gehiagarriak finantziatzea	- €
Epe luzera jasotako maileguak	- €
	860.000 €

GASTUAK

Pertsonala	287.582 €
Gastu amankomunak	230.574 €
Interesak mailegu	150 €
Dirulaguntzak eta erakundeei ekarpenak	130.769 €
Inbertsio gastuak	210.924 €
Transf. landa gipuzkoa	- €
Epe luzerako maileguez amortizazioa	- €
	860.000 €

Diru-laguntzak

- Eskatutakoak
Lehen hiru hilabetean honako diru-laguntzak eskatu dira:
Errota pilotalekuan irisgarritasun arazoa konpontzeko laguntza.
Urkitik Ermintza aldera doan herribideko tramo bat konpontzeko laguntza.
Herri bideen inbentarioa egiteko diru-laguntza.
Itsasondoko ur hornidura sarea 1. eta 2. fasea berrietzeko.
- Jasotakoak
Eusko Jaurlaritzak 1.632 euroko laguntza eman du, liburutegian teknologia berriak ezartzeko, irakurketa sustatzeko eta liburutegirako liburu berriak erosteko.

Hiri antolaketa plan orokorra aldatzea

- Itsasondoko Udalak 2015ean Hiri Antolaketa Plan Orokorra aldatzeko prozesua abian jarri zuen. Aldaketa horrekin, egungo baserrietan bigarren etxebizitza ezarri ahal izateko aukera ematea ahalbideratu nahi zen. Tramitazio luze baten ondoren, azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen kontseiluak 2017ko otsailaren 7an onartu du udalak planteatutako aldaketa. Gaiari buruzko informazio gehiago udaletxean jaso ahal izango da.

Exekutiba bidezko erreziboak kobratzea

- Urtero bezala, hondakinak, ura, ibilgailuak e.a. kobratu ondoren, 2016an pendiente geratu diren erreziboen exekutiba bidezko kobrantza egiteko tramitazioa hasi da.
- Borondatezko bidean urtean zehar kobratutakoa, hondakinaren eta uraren kasuan, %95 bat izan da; ibilgailuen kasuan, %90. Beraz, borondatezko epean kobratzea lortzen dena kopuru handia bada ere, gertzen dena apremio bidez kobratzeko ahalegina egingo da. ■

Haurreskolako albisteak



Azkeneko hiruhilabetean sartu gara; ondorioz, hurrengo ikasturteari begira, maiatzean matrikulazioa irekiko da. Oraingo honetan, maiatzaren 2tik 12ra bitartean izango da. Beraz, informazio gehiago nahi dutenak haurreskolara gerturatu daitezke; bertan, informazio pertsonalizatua emango zaie.

Bestalde, eguraldi hobea daukagula eta, ekintza berriak egiten hasi gara. Adibidez, haurrak plazara jaitsi ditugu, herriarekin harremanetan jartzeko. Gainera, gure inguruan antzarrak eta oiloak bizi dira, eta ia egunero ogia ematera joaten gara. Oso pozik jartzen dira, urrundik ezagutzen gaituzte, eta aldapa jaisten ari gara, kantuan hasten dira. Ekintza honek aukera ematen digu animaliekiko errespetua eta harremana lantzeko. Animalia hauek abesti batekin agurtzen ditugu, eta berriro haurreskolara joaten gara.

Azkenik, azkeneko hilabete honetan Urkipe eskolara bisitak egiten dihardugu. Bi helburu ditugu: bertako haurrekin harremanetan jartzea eta hurrengo urteari begira eskolara joango diren haurren egokitzapen prozesua lantzea. Horrela, haurreskolatik eskolarako bidea samurragoa izango da. Aldaketa nabaria izaten baita: espazio berriak, hezitzaile berriak eta haur berriak. Horrek guztiak askotan haurrari inseguritatea sortzen dio, eta hori ekiditeko, asteko bi egunetan eskolara joaten gara. Astearteetan, psikomotritate saioetara joaten gara eta bi urteko haurrekin elkartzen gara. Beraz, espazio berria, hezitzaile berria eta haur berriekin harremanetan jartzeko aukera ematen digu, eta haurrak pixkanaka plazerraz integratuko ditu. Ostiraletan, margoa eta buztina lantzea joaten gara; beraz, sormena eta eskolan ematen den erritmoa eta lana egiteko modua integratzeko aukera ematen digu. Oso baliotsua iruditzen zaigu. ■



Korrika Txikia

Apirilaren 7an, Itsasondo eta Arama bitarteko 20. korrika txikia egin zen. Aurten, eguraldi paregabeak lagunduta, Itsasondoko plazatik atera, eta trenbidea pasatuz, Aramako frontoirainoko ibilbidea izan zen. Haur, guraso eta aiton-amonek ere hartu zuten parte!

Bertan, Aramako familiek antolatuta, haurrentzako herri kirolak egin zituzten, eta bi herrietako haurrek elkarrekin jardun zuten.

Ondoren, indarrak hartzeko, txokolate gozoa banatu zuten, bizkotxoarekin. Giro polita sortu zen bi herrietako haur eta helduen artean! ■



Ijitu eguna

Urtero lez, aurten ere kaleratu ziren Kaldereroak Itsasondon. Haur, gazte eta heldu koadrila ederra inguratu zen jantzi dotore eta umore onez. Lehenik plazan elkartu, eta Bizi Nahi Elkartera abiatu zen koadrila, bertan, denen artean, "Ijitu beso erraldoia" egiteko. Egindako besoa dastatu ondoren, kaleetan zehar, musikaren laguntzaz zartagiak astinduz girotu zuten herria.

Iluntzean, elkartera bueltatu eta afari-merienda eder batekin amaitu zen ekintza. ■

Softball-a Irati Salinasi elkarrizketa

Itsasondoko eskolan, gorputz hezkuntzako saioetan, aurten kirol ezberdinak ezagutu eta praktikatzeari garrantzia eman diogu. Hainbat ekintza desberdinen artean, Foru Aldundiko kirol hastapenaren alorrean, softball saioak ere jaso ditugu. 3.zikloko ikasleentzako izan dira, eta Orelek, Atletiko San Sebastian-eko entrenatzaileak, bideratu ditu.

Entrenatzaileak lotura handia du Ordiziako softball taldearekin, eta honek interesa agertu du garai batean zegoenari bizia emateko. Dakizuenez, talde honetan zeuden Itsasondoko jokalariek ospe handia izan zuten, eta Euskal Herrian ez ezik, hemendik kanpo ere hainbat garaipen izan zituzten.

Horregatik, garai hartan jokalaria izan zen Irati Salinasi elkarrizketa egin diogu.



1. Nola ezagutu zenuen softball-a? Zergatik aukeratu zenuen softball-a, eta ez beste kirol bat?

Ordiziko taldea sortu aurretik, baziren beste herrietan neska taldeak. Horietao entrenatzaile bat, Atletiko San Sebastianekoa hain zuzen ere, Ordiziara etorri zen softball kirolaren berri ematera, eta talde bat sortzeko pausoa ematera. Hasiera batean, ni ez nintzen taldean sartu. Atletismoa nuen gogoko, eta bertan aritzeko intentzio osoa nuen. Gerora, nire lagun koadrilak softball-ean izena emateko gonbitea egin zidan. Zalantza izan nuen hasieran; izan ere, niri korri egitea gustatzen zitzaidan. Azkenean, probatu egin nuen, eta ezin izan nuen atzera egin, oso gustura sentitu bainintzen. Softball-ean egunetik egunera gehiago disfrutatuz joan nintzen. Nire lagun artean nengoen, eta baseetatik korri egite horrek piztu egiten ninduen; harrapatzaileen artetik ihes egin eta markagailura puntuak igo.

2. Noiz hasi zinen softball-ean?

Institutu garaian hasi nintzen, 2004. urtean, 13 urte nituela.



3. Zenbat neska taldek jokutzen zenuten ligan? Eta, gaur egun?

Euskadiko ligan sei talde ginen; horien artean, Easo (Donostia), San Marcial (Irun), Atletico San Sebastian (Donostia), Iñurritza (Zarautz), OBB (Orio) eta Ordizia.

Gaur egun, Euskadin bi talde baino ez dira geratzen: OBB (Orio) eta Atletico San Sebastian.

4. Ze ligan jokutzen zenuten?

Euskadiko ligan jokutzen genuen, eta urtean behin Espainiako txapelketan hartzen genuen parte. Ligaz aparte, urtean zehar torneoa izaten genituen hainbat herritan, hau da, lagun arteko partidak.

5. Non entrenatzen zenuten?

Ordiziako Oianguren institutuko patioan entrenatzen genuen eguraldi ona egiten zuenean, eta eguraldi txarra egiten zuenean, berriz, kiroldegian.

6. Mutilek jokutzen al zuten softball-ean?

Gure adineko mutilek ez zuten softball-ean jokatzeko, ez zen talderik sortu. Hala ere, gure entrenatzailea zenak Donostiako talde batean jokatzeko, Los Marineros taldean. Hauek ez zuten ligan jokatzeko, lagun arteko partidak egiten zituzten. Gure entrenatzailea kubatarra zen eta bere herrialdean bai, han jokatzeko. Euskal Herrian, oso mutil gutxi ibili izan dira softball-ean.

7. Zuretzat zer da softball-a?

Softball-a nire bigarren familia izan dela esan dezaket. Bertan, nire betiko lagun koadrila izan dut, eta gaur egun alboan ditut oraindik. Koadrilan sei neska gara; horietatik bost softball-ean aritu gara. Softball-ean ibili garenok oso ondo dakigu zenbat bizipen on bizi izan ditugun. Jokalarien gurasoak ere asko inplikatu ziren.

8. Ondo hartu al zuten zure ingurukoek zuk softball-a aukeratu zenuenean?

Inguruko jendeak oso ondo hartu zuten. Baziren gutxi batzuk ezetz esaten zidatenak; atletismoan urrutira iritsiko nintzelakoan zeuden. Baina, orokorrean, etxean, lagun artean eta familian oso gustura zeuden hartu nuen erabakiaz.

9. Damutu al zara inoiz kirol hori aukeratzeagatik?

Damutu ez naiz inoiz egin softball-a aukeratzeagatik, baina beti izan dut kuriositatea zer pasatuko ote zen atletismoa aukeratu izan banu. Izan ere, beti izan dut pena atletismoa alde batera utzi izana. Baina, esan behar dut softball-ean bizitako guztia ez nukeela ezergatik aldatuko: jende asko ezagutu dut, bidaia asko egin ditut... Esate baterako, Italiara joan nintzen, Euskadiko selekzioarekin jokatzera.

10. Irabazi al duzu txapelketaren bat zure taldearekin? Irabazi al duzu partida garrantzitsurik?

Ordiziako taldea pixkanaka-pixkanaka handituz joan zen. Taldean jokatzeko jende nahikoa ez izatetik 20 neska izatera iritsi ginen. Gogor entrenatu eta partidu asko irabazi eta galdu ondoren, 2008. urtea bikaina izan zen. Urte hartan, inork espero ez zuten Euskadiko talde batek irabazi zuen Espainiako txapelketa, Ordiziak, hain zuzen ere. Madrilen jokatu genuen txapelketa, eta finala Bartzelonako Proyecta taldearen aurka irabazi genuen. Txapelketa hori irabazteak indar handia eman zion softball kirolari, indarra hartu zuen herrian eta neska gazte ugari izena eman zuen softball-ean aritzeko. Gogor entrenatzen jarraitu genuen, eta partida politak egiten genituen. Esan daiteke, txapelketa horren ondoren, herrian eta jendartearen errekonozimendu handia lortu genuela; izan ere, ordura arte ia ez zen softball-a entzuten. ■

Jubilatuak, azken ekintzak

2017ko lehen hiru-illekoan jubilatuek egindako ekintzen berri ematen dizuegu.

Bizi Nahi elkarteko asanblada

Joan den martxoaren 26an Bizi Nahi elkarteko kideek asanblada egin zuten. 28 bat lagun elkartu eta urteko balorazioari ekin zioten. Azken urte hauetan, martxa ederra hartu du elkarteak; ekintza ugari antolatzen dituzte, eta baita herriko eragileek antolatzen dituztenetan parte hartu ere. Beraz, oso gustura azaldu ziren.

Bestalde, junta berritzeko proposamena egin zuten, eta bi boluntario berri agertu ziren. Hortaz, erreleboa ere bermatuta daukate. Datozen urteetarako ere aldaketak egiteko proposatu nahi izan dute, binaka jende berria sartuz eta horrela guztiak parte hartuz.

Kuotetan ere aldaketak egin dituzte. Orain, 60-80 urte bitarteko kideek 10 € ordainduko dituzte urtean, eta 80 urtetik gorakoek, berriz, 5 €.

Ikusita Bizi Nahi elkarteak duen martxa paregabea dela, bazkide gehiago egiteko eskaera egin nahi dute, herriko jubilatuentzako elkargunera gonbidatuz eta baita antolaturiko ekintza guztietan parte hartzerantz animatuz ere. Beraz, interesa baduzu, gerturatu elkartera, eta bertan emango dizkizute argibide guztiak. Animatu! ■

Lizeaga sagardotegira irteera

Martxoaren 23an, goizeko 11k aldera trenea hartu eta Martuteneraino joan ziren Bizi Nahi elkarteak antolatutako irteeran. 20 bat lagun elkartu ziren, eta egun ederra pasatzeko asmoz iritsi ziren Martutenera. Bertan, zerbait hartu eta sagardotegira abiatu ziren. Denbora pixka bat zutenez, paseotxo bat emateko aprobe txatu zuten, eta berriketarik ez zen falta izan. Gose pixka bat eginda, 14:00ak aldera, sagardotegira joan ziren bazkaltzera. Oso gustura egon ziren bertan, eta bapo bazkaldu ondoren, berriro ere Martutenera joan ziren. Kafetxo bat hartu, bueltatxo bat eman eta herrira itzuli ziren trenez.

Indartsu daude Bizi Nahi elkarteko kideak, eta eguraldi ona iristearekin batera, hainbat txango egitea aurreikusten dute; hala nola, maiatza aldera, Bizkaiko kostara joango dira, Lekeitiora eta Ondarroara, hain zuzen ere. Etorriko al zara zeu ere? ■



Lizeaga sagardotegiaren kanpoaldean

Kirol ikastaroak Itsasondon

Herriko kirol eskaintza

Badakigu herrian ez dugula kirol instalazio handirik, baina horrek ez digu eragozten herrian bertan kirola egitea. Herri Bizitzako saio batean herriko kirol eskaintzari buruz hausnartzen egon eta gero, ikusi genuen aukerak baditugula; eta aukerok, gainera, interes ezberdinak zituzten lagun taldeek sortu dituztela. Oso positibotzat jotzen ditugu ekimen horiek, eta bultzadaxo bat eman nahian, eskaintza horiek bildu eta berauei buruzko informazio osatua herritarren esku jarri nahiko genuke.

Zumba

Dantza estilo anitzak nahasten dituen kirola da zumba. Bertan, erritmo lasaiak eta azkarrak nahasten dira, erresistentzia landuz. Irakasleak koreografiak prestatzen ditu, eta berari jarraitu behar zaio. Kirola egiteaz gain, jendea ezagutzeko aukera aparta da, eta barre algarek ez dute etenik.

NOIZ: ostegunetan, 20:00etatik 21:00etara.

NON: eskolako aterpean.

IRAKASLEA: Claudia. Izena emateko Elena Mansorekin harremanetan jarri: 699 17 74 60.

KOSTUA: 70€ hiruhilekoa (kostua aldatu egiten da apuntatzen den jendearen arabera).

Pilates

Erabiltzailearen gorputza eta burua batera garatzeko egokitze fisikorako zuzenduriko bitarteko bat da. Giharrak indartu eta bizkortzearekin batera, giharrak luzatu, gorputz-jarrera hobetu eta malgutasuna eta oreka ematen du. Gorputza eta burua bateratzen ditu. Oso lagungarria da lesioak saihesteko, eta errehabilitazio lan gisa ere erabili daiteke.

NOIZ: astelehenetan eta asteazkenetan, 14:00etatik 15:00etara / 15:00etatik 16:00etara.

NON: udaletxeko erabilera anitzeko gelan.

IRAKASLEA: Idoia (661 80 80 12).

KOSTUA: 25€ hilean.

Yoga

Yoga "Bizitzeko Modua-Artea" da. Bizitza armonian, orekan eta barrenarekin modu baketsuan bizitzeko modua da, baita gizakiak dituen benetako dimentsioa, indarrak eta gaitasunak aurkitzeko ere. Yogaren helburua hirukoitza da: nork bere burua ezagutzea, nor bere buruarekin armonian eta orekan izatea, eta zoriontsu izatea. Yoga ikastaroa egunerokoan hobetzeko ahalegin berezia egin nahi duenarentzat eta zoriontsu izan nahi duenarentzat dago bideratua.

NOIZ: asteartean, 18:30etik 20:00etara.

NON: udaletxeko erabilera anitzeko gelan.

IRAKASLEA: Aloña, Tolosako "Anandi" eta Villabonako "Namaste" yoga eskoletako kidea (605 74 39 87).

KOSTUA: 40€ hilean. ■



Mukhtar Ahmed

SHERI deitzen diote lagunek

Pakistanen jaio zen, Gujrat-en, 1989an. Herria Chak Sikander 30 zenbakia da, nahiko arrunta bertan. Izen bera duten 300 bat herri daude, eta berea 30.a da. Familian bost neba eta bi arreba dira; bat Dubain bizi da.

2012an, 23 urterekin, Ingalaterrara joan zen, Londresera, "Btech HNC in business" ikastera. Bi urtez egon zen han. 2014an, Bartzelonara joan zen, eta 14 egun igaro eta gero, Ordiziara iritsi zen. Bertan, urtebete eman zuen eta AEKn euskara ikasi zuen. Ordiziatik Itsasondora eta Itsasondotik Azpeitiara joan zen, non urtebetez bizi izan zen. Ondoren, Azpeititik Itsasondora bueltatu zen, eta orain dela 15 hilabetetik Itsasondon bizi da, San Juan auzoan, Mohamed Hedmerar lagunarekin.

Ordiziako HHLra (Helduen Hezkuntza Ikastetxera, EPARa) joaten da, gaztelania eta euskara ikastera.



Orain bi urte, Ordizian zegoela, ume batzuek gizonezko bati harriak nola botatzen zizkieten ikusirik, gerturatu eta laguntza eskaini zion. Ordutik lagunak dira, eta lñakiri erosketekin laguntzen dio.

Noiz etorri zinen Itsasondora?

Orain dela 15 hilabete, 2015eko abenduan.

Zergatik erabaki zenuen zure herrialdetik joatea?

Ingalaterrara ikastera joateko.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunari buruz?

Mendia. Poztu egiten naiz paisaia hau ikusten dudanean, dena berdea, zuhaitzak...

Etorri nintzenean uste nuen hemen ingelesez hitz egiten zutela, baina euskaraz eta gaztelaniaz egiten zuten; beraz, hizkuntzak ikastea erabaki nuen.

Itsasondo oso leku lasaia da, lasaitasuna gustatzen zait.

Utzi al dituzu familiakoak bizi zinen herrialdean?

Bai, gurasoak eta neba-arreba txikiak.

Zein lanbide zenuen zure herrialdean?

Ikasten nengoen... Gero, Ingalaterran alfonbra lantegi batean lan egin nuen, baita taberna batean ere, zerbitzari. Gehiago gustatzen zitzaidan alfonbrak egiten lan egitea.

Zer lanbide duzu hemen?

Hemen euskara eta gaztelania ikasten dihardut.

Zer nabari duzu faltan?

Nire familia; gehienbat nire arreba Asra, orain 14 urte daukana.

Janari pikantea, kalabaza berdea, lady finger...

Hango janzkera; han emakumeek ez daramate prakarik, "shlwar" eta "camis" janzten dituzte, praka zabalak eta tunika luzea. Gizonezkoek "kurta shlwar", tunika luzeagoa janzten dute.

Zer ez zaizu gustatzen hemen? Eta zer duzu gustuko?

Inglesez ez hitz egitea eta agurtzen dudan jendeak kasu ez egiteaz aparte, euriak ere ez dit graziarik egiten. Nire herrian, euria egiten duenean denok, helduak eta umeak, kalera ateratzen gara bustitzera... Horretaz aparte, hemengo udaltzainek ondo tratatzen naute, hau ez da leku guztietan gertatzen. Bestalde, hotza gustatzen zait, eta orokorrean, dena dut gustuko.

Zein zaletasun dituzu?

Badmintonera jokatzea. Txikitatik jokatu izan dut. Azpeitian egon nintzenean, pilotan egiten nuen. Cricket-a ere gustatzen zait (hemen futbolearen aritzen diren bezala, Pakistanen kriketera jokatzen dute, eta Ingalaterrako jokoa izan arren, Asian ere jokatzen da). Baita dantza egitea, musika entzutea, gaueetan lagunekin ateratzea, txateatzea, gidatzea eta bidaiatzea ere (Ingalaterran, Parisen, Frantzia eta Espainian egon naiz). Ikastea ere oso gustuko dut.

Janari bat.

Hangoa: biryani; espezia asko duen oilaskoa arrozetan.

Hemengoa: patata tortilla eta babarrun gorriak.

Itsasondoko/Goierriko txoko bat.

Itsasondoko elizaren ondoan dagoen behatokia.

Amets bat?

Nire familia osoa hemen bizitzea eta mundu osoan zehar bidaiatzea.

Jaso duzun oparirik bereziena?

Mugikorra.

Zeri diozu beldurra?

Nire herriak eta Indiak eduki dezaketean gerrateari.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Galdera honek eragiten dit barregura, baita nire lagunekin egoteak ere.

Itsasondon biziko ez bazina?

Barakaldon.

Nola ikusten duzu zure burua urte batzuk barru?

Informatika edo kazetaritza ikasten eta jabetxe batean lanean edo zerbitzatzen. ■



Jabi Julio eta Iñigo Gutierrezen hitzaldia



Haurrak murala auzolanean montatzen

Errefuxiatuak ongi etorri herri ekimena

Ekainaren 20an "Errefuxiatuen nazioarteko eguna" dela eta, Itsasondoko Ongizate batzordeak bultzatuta, hainbat ekimen egitea erabaki da.

Hasteko, otsailaren 4an, zortzi mural jarri ziren herrian zehar. Mural bakoitzean, Jabi Julio argazkilari donostiarrak Chios uhartean (Grezia) ateratako argazkiak jarri ziren. Horretarako, herriko talde eragile guztiek hartu zuten parte: eskola, Bizi Nahi elkarte, Arbelaitz elkarte, Guraso elkarte, Sortu, udala, eta abar. Zoritxarrez, mural batzuk kaltetuta daude, eta horregatik, ekainaren 20rako mural berriak jartzea aurreikusten da.

Bestalde, otsailaren 21ean, Jabi Julio argazkilariak eta Iñigo Gutierrezek (Salvamento Maritimo Humanitario) eginiko "Wait just wait" dokumentala ikusteko aukera izan genuen. Ondoren, solasaldia ere izan genuen.

Ekainaren 17rako "paella solidarioa" egingo da, herriko plazan, beste ekintza batzuekin batera.

Bildutako dirua, errefuxiatuei laguntzeko eta herri ekimenean sortutako gastuak kubritzeko bideratuko dugu.

Jendea sensibilizatzea eta errefuxiatuen errealitatea gertuagotik ezagutaraztea da helburua.

Honek guztiak sortutako gastuei aurrerik egiteko, abenduko Herri Ekimeneko errifekin eta gaur egun urdaiazpiko zoketatant lortutako dirua erabili da.

Mila esker denoi, eta ekainaren 17an, denok plazara! ■

Gastuak hauek izan dira:

Egurrezko panelak	610€
Argazkiak	320€
Jabi Julio	200€
Barniza, rodilloak	97€
Tirafondoak	34€
Erratzak, kapazoak	74€
Kola	22€
Hamaiketakoa (10 lagun)	32€

Arbel paisaia ezagutuz

Martxoaren 1ean, eguraldi bikaina izan genuen goizean goizetik, eta baita ondo aprobetxatu ere! Ondartez-eko Ainara eta Beatriz etorri ziren Itsasondora, eta hogeita bost bat lagun elkartuta, aldapan gora abiatu ginen, gure inguruko arbel paisaiak eskaintzen digun aberastasuna ezagutzeko asmoz.

Lehenengo geldialdia Izarreko fabrika zaharrea egin genuen. Goiko galerietatik ateratako arbela bertara nola ailegatzen zen eta lantzen zuten azaldu ziguten. Herritar batzuen kontakizunek ere asko aberastu zuten istorioa. Beraien esperientzia azaldu ziguten, adibidez, gune honetan emakumeek lan egiten zutela, eta beraiek, umeak zirela, gora eta behera ibiltzen zirela janaria eta edaria eramanez.

Ibilbidean aurrera jarraituta, Malkorreko meatze sarbideak ikustea zen asmoa; baina, tapiatuta daudenez, ez ginen bertaratu. Hala ere, horri buruz hitz egiten aritu ginen eta aipatu zen, horma horiek ez dietela batere onik egiten pertzepzio paisajistikoari, baina zulo hauek irekita mantentzeak arriskurik suposatzen ez ote duen ere galdetu zuten batzuek. Hori guztia kontuan izanda, zein izan daiteke irtenbidea?

Meatze zulo hauek albo batera utzi eta Mendibil baserriaren ondoan dagoen egurrezko gaztelua ikustera joan ginen. Garai batean, galerien arteko komunikazio sistemaren funtsezko zatia zen; izan ere, barru honetatik garraiatzen zuten arbela, Beheko Zuloko irtenbideraino, hau da, Sarasola fabrikaren aurreraino.

Ikur honen garrantziaz jabetuta, mingarria izan zen horrela ikustea. Egurrez egindakoa da, eta denboraren poderioz, behera erortzen ari da. Horren inguruan elkartu eta zer egin, nola, noiz... pentsatzen aritu ginen. Datu interesgarri bat ere aipatu zen: eraikin hau herriko

perspektiba ezberdinetatik ikusten da, hau da, bada nolabait gure herriko historiaren ikur fisikoa; beraz, ez aldu daukan garrantzia erakustea merezi?

Hemendik, herrirako bidea hartu eta Beheko Kaleko zuloa bisitatu genuen. Orduan, txikiak gehienbat ulertu ahal izan zuten nola dagoen komunikatuta aurrez bisitatu genuen egurrezko gazteluarekin.

Nekea eta gosea medio, herriko plazan prestatutako hamaiketakora gerturatu eta txangoa amaitu genuen. Goiz ederra pasatu genuen, eta ziur batek baino gehiagok herriari buruzko datu interesgarri asko ikasteko aukera izan zuela.

Dena ez zen hemen amaitu. Pare bat aste geroago, kulturgunean elkartu eta ikusitakoari buruz hausnartu genuen. Bertan, arbel pasaiaren ondarearen garrantziaz hitz egin genuen, eta baita hau ikustarazteko edo mantentzeko ekintza zehatz batzuk aipatu ere, hala nola, Mendibilgo egurrezko gaztelua berreraikitzea, mina zuloen inbentario bat egitea hauen inguruko informazioa izateko eta aldi berean segurtasuna bermatzeko; ildo beretik, tapiatuta daudenak hesi baten antzekoekin itxi, segurtasuna mantenduz baina barruan dauden elementuak ikusteko aukerarik kendu gabe, oraindik interesgune asko gordetzen dituzte eta.

Prozesua ez da amaitu, eta herritarren interesa badago, lanean jarraituko dugu; beraz, animatu eta parte hartu geroago antolatuko diren ekintzetan. ■



Informatika topagune bat baino askoz gehiago

Berriro ere Tolosan egin da Gipuzkoa Encounter, informatika gustuko duen jendearen elkargunea. Baina, informatikaz bakarrik hitz egiten al da?

Aurten ere egin da Gipuzkoa Encounter, Tolosako Usabal kiroledegian, urtero bezala. Esan beharra daukat artikulu hau topagunean bertan ari naizela idazten. Jadanik 11. edizioa da, eta urte askoan jarraitzeko asmoa ikusten zaio topagune honi.

Baina, ze nolako jendea, estereotipo, afizionatu motako parte-hartzaile ikusi ditzakegu. Esan beharra dago gauzak asko aldatu direla, nahiz eta denok komunean informatika zaletasun hori eduki; gainera, beste zaletasun batzuk komunean dauzkaten parte-hartzaile talde txiki berriak sortzen ari dira.

Dagoeneko, ez dira bakarrik ikusten topagune hauetan ohikoak diren betiko taldeak, hau da, jokariarik, programatzaileak, lizentzia askeko programak bultzatzen dituztenak, arte digital sortzaileak eta teknikariak (hardware mundua). Informatikaren mundutik kanpo dauden taldeak sortzen dira parte-hartzaileen artean, hala nola, mahai jokoak (trivial, catan, monopoly) edo rol jokoak gustatzen zaizkion jendea, mozorroak egiteko profesionalak, karta jokariarik, telesailak gustatzen zaizkion jendea e.a. Eta, eskertzekoa da, talde txiki horiek denborarekin, ia nahi gabe, sortu izana. Baliagarriak dira topagunearen errutinatik ateratzeko eta beste gauza batzuk egiteko. Horretaz aparte, hasieran aipatutako bost taldeetako jendea beraien artean hobeto ezagutzeko



Aurtengo Gipuzkoa Encounter-eko argazkia

balio du, eta ikusi daiteke informatikaz aparte komunean gauza gehiago egon daitezkeela.

Esan beharra dago, denborarekin sortu diren talde hauei esker, topagune hauetan izan diren topiko asko aldatu direla. Ia ia betidanik mutilen gunetzat hartu izan da, eta gaur egun, emakumeen parte-hartzea asko igo da. Gizonezkoak %85-%90 izatetik %70 izatera pasa da, gutxi gorabehera. Horrek esan nahi du, orain arte emakumeentzako zaletasun hau tabu bat izan arren, emakumeen presentzia asko igo dela.

Ez da bakarrik emakumeen parte-hartzea igo. Aurten (Gipuzkoa Encounter 11n) ikusi izan dira lan batzuk non kolektibo/talde hauek emakumeen indarkeriaren aurka dauden. Beraz, esan dezakegu kutsu soziala ere baduela.

Hori guztia esanda, jende askok oraindik pentsatuko du jolastera eta deskargatzera bakarrik etortzen gara. Ziurrenik, bai; baina, artikulu honekin esan nahi nuena da, topagune hauetan bizitza dagoela. Kontua ez da zure eserlekuan eseri eta automata bat izango bazina bezala hiru egunetan jolastu eta ahal duzun gehiena deskargatzea, inongo kontakturik gabe. Askoz gehiago da; ekitaldiak, tailerrak, debateak eta jendea bera da esperientzia ahaztezin hau sortzen duena.

Nola ez du izango pisua egungo munduan topagune mota honek... Tolosako topagunean gertatua ikusita bakarrik ideia bat egin dezakegu. Aurten, sarrerak saltzerakoan, 15 segundutan 400 sarrera jadanik salduta zeuden. Auskalo zer gertatuko den datorren urtean. ■



33. Ibilbidea

Urtsuaran bailaran zehar

Ibilbide hau Jasoko fabrika hasiko dugu, eta Urtsuaran auzorantz abiatuko gara. Errekari eta pista nagusiari jarraituz, Urtsuaranera iritsiko gara. Atzean utziko dugu eliza, eta Arbelatxo baserrira iritsi arte jarraituko dugu. Hemendik aurrera, ibilbidea zaildu eta gogortu egiten da. Hasieran, bidea nahikoa zabala da; baina, aurrera goazen heinean, eta batez ere erreka bi aldiz gurutzatzen dugunean, estutu egiten da, eta aldapa gogorrak hasten dira. Gogoan hartu beharreko erreferentzia izango da erreka beti eskubitara izan behar dugula. Bide estu horrek erreka gurutzatzera eramango gaitu berri, hari handi baten ondoan. Basoko bide horri jarraituko diogu goraka, eta beheranzko norabidea hartuko dugu ezkerretara, beste bide batekin topo egiten dugunean. Beharoko bidea hasiko dugu, basoa zeharkatuz eta erreka ezkerretara dugula, lehenago ikusi dugun harriarekin topo egin arte. Etorritako bidetik egingo dugu buelta. ■

Iraupena: 3 ordu eta erdi






01

Olegi baserria



02

Goiburua baserria



03

Erreka jarraituz



04

Olea baserria



05

Santa Engrazi basiliza




06

Goikoetxealde



07


Arbelatxo baserria



08

09

Erreka gurutzatut



10

Azpikola txikia



“Bi ero diskotekan” antzerkia

Martxoaren 17an, 19:30ean izan zen emanaldia eskolako aterpean. Beste behin ere, jende asko elkartu zen ostiral arratsaldean antzerkiak goatzera.

Pertsonaiak emakumeak dira, bi emakume heldu, amak biak; baita nerabe bat ere tartean. Bi emakumeak gau ero eta dibertigarri bat pasatzeko prest daude. Nerabea, alaba, ere agertzen da, ordea. Lotsatuta dago amaren eta izebaren piura horietaz, eta zer esanik ez, parrandarako prest daudela ikusita. Hitz egin eta abestu egiten dute, irri eta negar... Mugikorren erruz neska askok jasaten duten neurririk gabeko kontrola ere azalratzen da.

Emakume komedia, ama-alaben komedia da, baina batez ere umorez betetako antzezlan, ikusleek gozatu ahal izan zutena. ■



Antzerkira bertaratutako jendea



Emankizuneko une bat

Hitzaldia, Aralar Bizirik plataformaren eskutik

Joan den hilean, otsailaren 9an, Aralar parke naturaleko pista proiektuaren inguruko informazio saioa egin zen udaletxeko kulturene aretoan, Aralar Bizirik herri plataformaren eskutik. Herritar mordoxka bertaratu zen hitzaldira, tartean zenbait udal ordezkari, auzi nahasi honen inguruko sentsibilitateak bultzatuta.

Saioari ekiteko, parke naturalek duten izaera esleitu izan zen mintzagai; Aralarren natur ondare oparoaren aberastasunari erreferentzia egin eta parke naturala izateak bere barruti anizteta aplikatzen dizkion legediak zein babes neurriak eta berauen baitako eskubide zein betebeharrak azaldu zituzten. Hari horri jarraituz,

Gipuzkoako Foru Aldundiak, batetik, eta Enerio-Aralar Mankomunitateak, bestetik, Aralarren barrera pista-sare bat eraikitze proiektua onartu zutenetik gaurdaino izan diren irregulartasun anitzen berri eman zuten.

Hitzaldia amaitzeko, azpiegitura erraldoi honen aurrean egon daitezkeen alternatiba eta proposamenei buruzko gogoeta egin zuten, eta pista proiektua geratu eta errespetuz Aralarren ondarea zaintzeko arduraz ohartarazi zuten Aralar Bizirik plataformakoek. Behin hizlariak bere jarduna amaitutzat emanda, bertaratu zirenei hitza hartzeko gonbitea egin zieten, eta solasaldi oparorako abagune aparta izan zen. ■



Eskulan ikastaroa

Martxoaren 1ean, urte luzeetako ohiturari jarraituz, eskulan ikastaroa hasi zuten. Asteazkenetan, Bizi Nahi jubilatutako elkartearen elkartzen dira, 14:45etik 16:45era, eta hainbat eskulan egiten dituzte. Ikastaroak hiru hilabete iraungo du, hau da, maiatzera arte izango da, eta 15 euro ordaintzen da pertsonako. Parte-hartzaileek animatzeko deia egiten dute, giro politean arratsalde ederrak pasatzen dituztelako; eta, a zer nolako lanak egiten dituzten. Bejondeizuela!



Ikastaroan eginiko lan bat ikusgai



Eskulan taldeko lagunak lanean

Oihana Kortazarren hitzaldia

Kiroi asterako prestatutako egitarauaren barruan, Oihana Kortazarren hitzaldia izan genuen apirilaren 26an. Mendi lasterkaria da Oihana, eta bere esperientzia kontatzera etorri zen. Gaztetatik gustatu izan zaio kirola egitea, eta pixkanaka-pixkanaka, hainbat kirol egin eta gero, orain dagoen lekuraino iritsi da. Bere ibilbide arrakastatsuan zehar ama ere izan da, bi aldiz, gainera! Momentu horietan geldialditoxa egin behar izan bazuen ere, oso garbi zeukan mendi lasterketetan jarraitu nahi zuela; beraz, amatasunaz gozatuz, ez zuen inoiz amets hori bertan behera utzi.

Familiaren babes handiarekin, munduko lasterketa askotan hartu du parte, eta baita irabazi ere! Kirolari aparta delako zalantzarik ez daukagu, eta berak dioen bezala, etorkizun luzea du oraindik aurretik. Beraz, animo zure ibilbidean Oihana, eta mila esker Itsasondora etortzeagatik! ■



Oihana Kortazar mendi lasterkaria

Xabier Mendaraz kiropraktikoaren hitzaldia

“ Bizkarrezurraren errebisioa erregulartasunez egin beharko genuke ” dio Xabier Mendarazek. Gaur egun Donostiako kontsultan lan egiten duen arren, Amazonasen eta Kalkutan ere aritu da Xabier lanean. Bizkarrezurra zaintzearen garrantziaz hitz egin zigun otsailaren 14an, Itsasondoko kulturgunean. Ikuspuntu natural batetik osasuna zer den azaldu zigun, eta nola hobetu dezakegun. Bizkarrezurrak gure osasunean izan dezakeen eragina eta kiropraktikak nola lagundu gaitzakeen azaldu zigun. “ Osasuna lantzeko modu naturala da, botikarik gabea ”.

Kiropraktikaren oinarria hau da: egoki funtzionatzen duen gorputzak bakarrik sendatzeko gaitasuna dauka. “ Gure lana da bizkarrezurrak nerbio sisteman eragin ditzakeen interferentziak saihestea, gorputzak ondo funtzionatzeko ” aipatu zuen behin eta berriz.

Sistema zentrala babesten duen estrukturarekin egiten dute lan kiropraktikoek, hau da, bizkarrezurrekin.



Xabier Mendaraz kiropraktikoa

Nerbio sistemak gorputzeko funtzio guztiak erregulatzen ditu, eta burmuineko informazioa gorputz osoan zabaltzen du. Sisteman interferentziak sortzen badira, gaixotasunak agertzen dira, eta ez bakarrik bizkarrezurrekoak. Kiropraktikak, doiketarekin, interferentzia horiek saihesten ditu.

Gure artean, ez dago ohiturarik bizkarrezurra zaintzeko. Hortzen edo ikusmenaren azterketa egiten dugun bezala, bizkarrezurra ere erregulartasunez begiratu beharko genukeela uste du Xabierrek. ■

D Luis R upategira txangoa

Martxoaren 18an, goizean goiz Itsasondoko plazan abiapuntua jarrita, Arabar Errioxarako bideari ekin genion. Lehen geldialdia Haroko Terete jatetxean egin genuen. Bertako upategiak bisitatu genituen lehenik, eta ondoren, indarrak hartzeko hamaiketako egin genuen bertan.

Harotik Lantziegora joan ginen. Herrian zehar ibili ondoren, bazkalduko genuen D Luis R upategira joan ginen. Bertako ardoak dastatu ostean, bazkari ederra jateko aukera izan genuen. Jakina da ez dela komeni tripa hutsa delarik edatea, eta guk ondo asko bete genuen esana. Arratsaldean, Lantziegoko kaleetan ibili ginen, eta berandutu aurretik autobusean etxerako bideari ekin genion. Egun aparta pasatu genuen. ■



D Luis R upategia



Bazkariko une bat

XX. Korrika Itsasondon

Tipi-tapa tipi-tapa abiatu zen XX. Korrika Otxandiotik, martxoaren 30ean, eta pauso sendoz iritsi zen Iruñera, apirilaren 9an. Tartean hainbat herri igarota, harrotasun sentimendua azalarazten digulako zalantzarik ez dugu. Euskararen aldeko jai handi honetan, milaka ero ateratzen gara errepideetara, bero nahiz hotz egin, arratsalde nahiz goizeko ordu txikietan. Ibilbideko zati batzuetan, ehunka pertsona elkartzen dira; beste batzuetan, aldiz, bi. Baina, inoiz ez dugu bakarrik uzten Euskal Herrian barrena doan furgoneta; inoiz ez dugu bakarrik uzten euskara, gure hizkuntza.

Adierazgarria izan zen Itsasondon kalera atera zen jendetza. Korrika batzordeak egitarau oparoa antolatu zuen, eta herritarren erantzuna bikaina izan zen. Gustura elkartu ginen plazan, eta harrera beroa egin genion Korrikari. Irudi politak utzi zizkigun. Alde batetik, Paulina, gure hizkuntza ikasi nahian dabilen euskara ikaslea, ikusi genuen lekukoa gogotsu hartzen, bejondeizula! Bestetik, Xabi eta Haizea, euskaraz bizi diren aita-alabak, lekukoa elkarbanatuz, tipi-tapa, irribarretsu euskararen alde.

Zoragarria aurtengo Korrika; antolatzaileek diotenez, kolosala. Jendetsua izateaz gain, indartsua izan da, eta inoizko anitzena; izango ez da, bada? Joseba Sarrionandiak dioen bezala, "Konturatzen zara goizetan ohetik jaitzean ezti tanta gozo bat bezala senti dezakezula ezpainetan?". Horixe da euskara, zoragarria, gozoa, gure altxorra.

Egin euskaraz; altxor unibertsal bat da, guztiona, agorzen ez dena, eta doakoa. Euskarak egiten gaitu herri! ■



Korrika-ren lekukoa Itsasondoko kaleetan zehar

Muffins eta cupcake sukalde tailerra

Otsailaren 22an izan zen sukalde tailerra Bizi Nahi Jubilatuta Elkartearen. Rosik bezperatik prestatutako orea apaindu eta osatzeko aukera izan zuten parte hartu zuten umeeek eta gazteek. Dotoreak eta goxo-goxoak egin zituzten!

Hona hemen errezeta:

Osagaiak:

- 350 g irin.
- 100 ml oliba olio birjina (baso erdia).
- 100 ml ekilore olio (baso erdia).
- 250 ml esne.
- 4 arrautza.
- 200 g azukre (zuria ala beltza izan daiteke).
- Gatz pittin bat.
- Legami zorro bat.
- Limoi erdiaren azal birrindua.

Egiteko era:

1. Ontzi handi batean arrautzak eta azukrea irabiatu, azukrea ondo nahastu arte.
2. Gehitu limoi erdiaren azal birrindua eta gatz pittin bat.
3. Ondoren, nahastu oliba olioaren zein ekilore olioaren, poliki-poliki.
4. Jarraian, esnea gehitu pixkanaka-pixkanaka.
5. Azkenik, legamia eta irina tamizatuta, ondo nahastu dena.
6. Orea geldirik utzi behar da, film gardenarekin ontzia estaliz, hozkailuan sartuz, gutxienez 30 minutuz.
7. Labea berotzen jarri bitartean, 200°an.
8. Labe bandejan jarri silikona edota paperezko moldeak eta 3/4ak bete orez.



Ilkastearen denak adi



Haurrek eginiko muffins-ak

9. Nahi izanez gero, azukre pixka bat gehitu daiteke gaineratik; baita dekoratzeko erabil daitezkeen hainbat osagai ere.
10. Labea berotutakoan, sartu bandeja, eta 15-20 minutuan eginda daude (labearen goiko eta beheko erresistentzia aukeratzea komeni da, eta atea ez irekitzea egosten bukatu arte).
11. Kolore pixka bat hartutakoan, labetik atera eta 5 minutuz uztea komeni da.
12. Ondoren ere apaindu daitezke. Txokolate zuria edo beltza esnegainarekin batera aurreratik urtu, gaineratik bakoitzari zabaldu, eta ostean, nahi diren osagarriak jarri. Irudimena martxan jarri eta on egin! ■

Euskal Herriko mus txapelketa

Otsailaren 11n zuten hitzordua Kaxintanera hurbildu ziren sei bikoteek. 16:00etan hasi zuten jarduna, lau erregetara; eta, Lontxo Artza eta Jose Ignazio Arbillaren aurka finala irabazi ondoren, Joseba Goikoetxea eta Patxi Salazar gertatu ziren Itsasondoko garaile eta ordezkari. ■



Muslariak jardunean

Martxoaren 8a, emakumearen nazioarteko eguna

Hamabi bat urte ba omen dira egun hau ospatzen dela gure herrian. "IZAN BURUJABE, IZAN ASKE" leloa zuen pankartaren atzean elkartu ziren hainbat lagun martxoaren 8an, herriko plazan.

Plazan elkartu ondoren, poteoa izan zen, eta Arbelaitz elkartean afari ederra prestatu zuen Ikerrek; elkarteko hainbat kidek zerbitzatzen lagundu zuten. Giro onean afaldu zuten, eta aurten ere emakume batek jaso zuen oroigarria, Rosik, hain zuzen ere.

Ikerrek adierazi zion bezala "... askotan besteentzat prestatu izan baduzu ere, oraingo honetan guri dagokigu zuri oroigarria eskaintzea, guztion esker onez!". Ondo merezitakoa, zalantzarik gabe! ■



Rosi, oparia jasotzeko unean



Aurten eginiko elkarretaratzea

Dokumentalak

Aurten ere, Ongizate batzordeak dokumental zikloa antolatatu du. Pasa den otsailean, errefuxiatuen egoeraren inguruko dokumentala izan genuen: Wait Just Wait; ondoren, solasaldia izan zen Kulturgunean, Javi Juliorekin (dokumentalaren egilea) eta Iñigo Gutierrezekin (Salvamento Marítimo Humanitario-ko kidea). Horrez gain, martxoan Down Sindromearen Nazioarteko Eguna zela aprobetxatuz, Motxila 21 dokumentalaz gozatu ahal izan genuen itsasondoarrok. Eta, apirillean, "La Sonrisa Verdadera" dokumentala ikusteko aukera izan genuen. Orokorrean, Kulturgunera joan direnen gustuko dokumentalak izan dira, eta espero dugu hurrengoak ere horrela izatea. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi! ■



Motxila 21 dokumentalaren emanaldia

(natura)

Belardian loreak gustatzen zaizkigulako

Egia esateko, Itsasondoko herrigunearen inguruan oraindik mantentzen dira belardi batzuk. Hala ere, kaletarrak ere zerbait berdea nahi eta, desberdintzearen edo, hara hor etxean artean apaindutako jardinak.

Baina, denak behar omen du bere neurria, eta hemen ere ez da falta. Zuhaitzak eta zuhaixka batzuk landatu zituzten, eta, dirudienez, tarteetan bertako landareri onartzen ez duten horietakoak izan: satitsu bat izkutatzeko altuerara helduz gero, moztu zeharo!

Hala, udaberria iritsi bezain pronto, hor da makinaren burrundara! Buruko ilea bailiztan, zentimetrotik behera utzi arte ez dute ez makinak ez morroiak etsitzen. Baina, asmatu ezinik nabil landare hauen kontrako borroka sutsu honen intentzioa: ekonomikoa, estetikoa, metafisikoa?

Ez zait buruan sartzen belar hauei zergatik ez zaien hazkuntza zikloa osatzen uzten: garatzen, polinizatzen, fruituei heltzen eta haziak banatzen, landare belaunaldi berri bati hasiera emateko. Jardín ederren kolore guztiak ez ditugu izango, baina txikori belar, margarita edo urrebotoien loreek ere badaukate bere puntua. Ezin ikusi, ordea. Eta, norbaitek pentsatzen badu jardinak belar artifizialeko zelaiak bezala mantentzea ideia aparta dela, bada, ondo legoke jakitea; mantenimendu lanak zerga-ordaintzaile guztien kontura joango omen dira, eta eztabaidatu dezakegu.

Hasteko, esan beharko zaie biodibertsitatea eta bere onurek ez dutela zertan garestiak izan, eta ez direla inor gutxi eza-gutzen dituzten erreserba horietara mugatzen. Gure jardinetako belarrei bizitza-zikloa osatzen uzteak mota guztietako (handi eta txiki) bizidunen mesedea dakarrela, eta denbora baino lehen mozteak ez duela onura ezagunik.

Pentsatu, besterik ez bada ere, elikatzeke loreen nektarra janari duten erle eta antzeko intsektuetan. Belarrei loratzen uzten ez badiegu, agur esan behar biodibertsitatearen zati esanguratsu bati. Lorerik gabe, akabo polinizatzaileak! Eta asko dira polinizatzaileak behar dituzten landareak: leihoko geranioetatik hasi eta baratzeke tomateetaraino bai, behintzat. ■



Ilñaki Aizpuru



(ennezeta)

Cous-cous entsalada, barazkitxoekin eta gulekin

4 laguntzako osagaiak

- 250 g cous cous.
- 200 g gula.
- Azenario bat.
- Kalabazin baten azala.
- Tipula samur bat.
- Porru erdi bat.
- Letxuga mezclum-a 4 laguntzako.
- 100 ml Sojako ozipin-olio (zati bat oliba-olioa eta beste bat soja saltsa).
- Gatza, piperbeltz beltza eta kimu samurrak.

Prestaketa

Jarri sutan ez itsasteko kazolatxo bat, oliba olio parrastada batekin, eta potxatu oso fin moztutako barazkitxoak minutu pare batez.

Gehitu cous-cous-a su bizian eta baso bat ur bota. Es-tali eta egosi su txikian, ura gutxitu arte.

Ura gutxitutakoan, kendu sutik eta cous-cous-a erretilu baten jarriko dugu, olio apur batekin askatuz. Sutan jarriko dugu berriro eta beste baso bat ur gehituko diogu; lehengo prozesu bera jarraituko dugu eta beste behin errepikatu.

Cous-cous-a eta barazkitxoak egosita dauzkagunean, salteatutako gulekin nahasiko dugu. Gero, erretiluan jarriko dugu, epeldu dadin, eta entsalada egiten goaz.

Olio sojarekin emulsionatuta prestatuko dugu ozipin-olioa. Ozipin apur bat gehitu dakioko nahi izanez gero, eta mango purea edo antzeko zerbait, ozipin-olioari ukitu gazi-geza emateko.

Plateretan letxuga mezclum-aren edo letxuga arruntaren oinarria jarriko dugu, eta cous-cous-a gulekin gehituko diogu. Entsalada atonduko dugu kimu samur batzuekin, loreren batekin edo haziren batekin, eta ozipin-olioa botako diogu.

On egin! ■



Juanan Jiménez
Altamira jatetxea. Ordizia
677 293 697

E-liburutegia

Ziur zuetako askok baduzuela e-book bat etxean. Azken urteetan, aukera hau asko erabili izan da opariak egiterakoan, eta askok e-book edo liburu elektronikoa fede gehiegi izan gabe ere, esku artean izango duzue horrelako gailuren bat.

Zuen liburu elektronikoa hautsa hartzen baduzue eta irakurketan murgiltzeko asmoa baduzue, hemen aurkeztuko dizuegu aukera paregabe bat. Eta, zer esanik ez, zuen liburu elektronikoari sua ateratzen diozuenetarikook baldin bazarete.

E-liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen plataforma bat da, Internet bidez eduki digitalak irakurtzea errazten duena. Irakurketa hori streaming bidez, ordenagailuaren bitartez edo gailu mugikorren bidez egin daiteke.

Betebehar bakarra da liburutegiko bazkide izatea eta bertan emandako erabiltzaile eta pasahitza gogoratzea. Gogoratzen ez baduzue, eska iezaguzue berriz.

Hemendik aurrera, nire esperientzia kontatuko dizuet, e-liburutegiko web orrian sartu eta liburu bat nire e-book-era deskargatzea lortu bitartekoa. Aitortuko dizuet, ez da bide samurra izan, baina merezi izan du.

Lehenik eta behin, honako web orrira sartu behar duzue: <http://www.eliburutegia.euskadi.eus>.

Bertan, eskuratu ahal izango dituzuen liburu guztien zerrenda duzue, eta kontuan eduki egunetik egunera katalogoa asko zabalitzen ari dela. Gainera, ordenagailuan irakurtzea axola ez dizun horietakoa bazara, nahi duzun adina irakurri ahal izango duzu on-line.

Zure liburu elektronikora deskargatu nahi baduzu, ordea, honako pausoak eman beharko dituzu:

1. Adobe Digital Editions aplikazioa zure ordenagailuan instalatu behar duzu. Doako aplikazioa da, eta Interneteko bilatzaile batean izena jarri eta azalduko zaizu.
2. Behin aplikazioa zure ordenagailuan instalatua duzunean, akrobatzeko eskatuko ditu.
3. <http://www.eliburutegia.euskadi.eus> orrira joan, liburutegiko erabiltzaile eta pasahitzarekin identifikatu, eta deskargatu nahi duzun liburua aukeratu. Aldiko hiru liburu deskargatu ditzakezu, eta 20 egun izango dituzu irakurtzeko.
4. Dagoeneko deskargatu duzun liburua Adobe Digital Editions aplikazioan izango duzu. Aplikazioa irekitzen duzunean, bertan azalduko zaizu liburua.
5. Zure liburu elektronikoa, USB bidez, zure ordenagailura konektatu.
6. Adobe Digital Editions aplikazioan, e-book-era pasatu nahi duzun liburuaren gainean ezkerreko botoiarekin klikatu eta kopiatzeko esan behar diozu.

ZORIONAK! Lortu duzu zuk nahi zenuen liburua eskuratzeko.

Ez arduratu lehenengoan asmatzen ez baduzu, saltseatu pixka bat eta ziur lortuko duzula. Gogoratu, nahi duzunean eta zure etxetik mugitu gabe kalitatezko liburu zerrenda zabala izango duzula eskuragarri. Beste kontu batzuekin gertatzen den moduan, lehen aldia da kostatzen dena.

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitezuen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Zeba etorri da?	Zergatik etorri da?
Haizea dago.	Haizea dabil.
Geldituko gara?	Elkartuko gara?

Euskaraz bai, umorea ere bai

Bi emakume, elkarren lagunak, kafea hartzen:

- Zer duzu ba? Kopetilun zaude...
- Bada, senarra bidali dut bazkaria egiteko patatak erostera; bidean auto batek harrapatu eta hil egin da!
- Ez esan!!! Eta zer egin behar duzu orain?
- Ez dakit ba. Makarroiak...

Albisteak

Nafarroan euskal hiztuna da lau gaztetatik bat.

Handitzen ari da euskaraz dakiten 16 eta 24 urte arteko gazteen kopurua Nafarroan. 1991n inkesta soziolinguistikoa egiten hasi zirenetik, 3,4 puntu hazi da 16 urtetik gorakoan euskara ezagutza, eta biztanleek euskarareriko duten jarrera ere bilakaera ona izaten ari da.

Euskararen Nafar Kontseiluan jakinarazi dituzte inkesta soziolinguistikoaeren emaitzak, Nafarroako Jauregian egindako bileran. Haien arabera, 16 urtetik gorako biztanleen %12,9k dakite euskaraz –1991n %9,5–. Gainera, gaur egun euskara sustatzearen alde daude nafarren %33 –1991n %21,6 ziren–.



Zerbait falta da?



Ondorengo argazkian zerbait falta da, ea zer den asmatzen duzun. Asmatzaileen artean Kaxintanen edo Nautico-n afari bat zozketatuko dugu. Erantzuna **itsasondo2.0@itsasondo.eus** helbidera bidali behar duzu edo horretarako apropos udaletxean eta kaxintanen izango den buzioxoan sartu behar duzu. Zorte on!!

Kultur Agenda

MAIATZA

- 02, 09, 16, 23, 30:** Tipi Tapa | 17:00 plazan
03: Festa batzordearen 1. bilera
03, 06 eta 07: Urkiko Santikutz jaiak
13: Makrobiotika tailerra | AZKENBURUKO NATURALAK
14: Herri Urrats
15: Lurralde Antolamendua eta Hirigintza batzordea | 19:00etan udaletxean
17: Herri Bizitza batzordea | 19:00etan udaletxean
24: Jai batzordea | 19:30 udaletxean
25: Bingoa | 17:00 jubilatuta elkartean
25: Film. Dokumental emanaldia | 19:00 kulturagunean
27: Errepresaliatuen eguna
Basalandare tailerra
29: Ongizate batzordea | 19:00etan udaletxean
30: Memoria tailerra | 18:00 jubilatuta elkartean

EKAINA

- 05, 07, 19, 21:** San Juan egunerako dantza entsaioak
06, 13, 20, 27: Tipi Tapa | 17:00 plazan
06: Harrera eguna
09 eta 10: Garagardo festa
11: Eskola Txikien festa Arroan
12: Lurralde Antolamendua eta Hirigintza batzordea | 19:00etan udaletxean
14: Herri Bizitza batzordea | 19:00etan udaletxean
16: Kanpo Filma | Dokumental emanaldia
17: Errefuxiatuak ongi etorri jaialdia
23: Eskolako azken eguna
23: San Juan sua
26: Ongizate batzordea | 19:00etan udaletxean
27: Memoria tailerra | 18:00 jubilatuta elkartean
29: Bingoa | 17:00 jubilatuta elkartean

UZTAILA

- 21:** Kanpo Filma | Dokumental emanaldia
10: Lurralde Antolamendua eta Hirigintza batzordea | 19:00etan udaletxean
12: Herri Bizitza batzordea | 19:00etan udaletxean
24: Ongizate batzordea | 19:00etan udaletxean

Telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkarte	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ileapaindegia	943 160285
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkari ((36. zk.)) Iratzeazkena 2017

Ale honetan parte hartu dutenak:

Amia Salegi
Asier Bazaga
Belen Mendizabal
Bizi Nahi jubilatuta elkartea
Danel Etxeberria
Emma Arrondo
Erkuden Mendizabal
Eskolako haurrak
Haizea Arruti
Haurreskolako hezitzaileak
Iker Mendizabal
Iñaki Aizpuru
Iratxe Ibarra (UEMA)
Iturritxiki Guraso Elkarte
Juanan Jimenez
Maddi Alberdi
Maider Saenz de Navarrete
Maite Lasa
Mikel Mendizabal
Niko Rodriguez
Rosi Noguera
Ruth Gomez
Saioa Garbizu
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572



Gipuzkoako Foru Aldundia

!
GOGORAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
UZTAILEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN